



Estatuari epaiketa



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO KAZETARIA
@dvdbou

Otsailaren 12az geroztik hamaika pertsona eserita daude Espainiako Auzitegi Gorenaren akusatuen aulkian. Kataluniako autodeterminazio erreferenduma epaitzen ari dira, 2017ko urriaren 1ean egin zena. Epaituak independentismoaren kausa orokorraren goi-muturraren adierazleak baino ez dira. Horiei hauexek gehitu behar baitzaizkie: zortzi erbesteratu, bere udalerrian konfinatuta dagoen aktibista bat, 1.318 zauritu, 136 atxilotu, 144 webgune itxita, hamazazpi irakasle ikuskatuta eta hiru milioi euro fidantzatan emanda. 2017ko irailetik 2019ko urtarrilera bitartean Estatuak zabalduko errepresioaren ondorioak dira. Herritarren mobilizazioek aurrea hartu zioten Estatuari eta honek inizatiba berreskuratu nahi du neurri horien bitartez.

Egia esan, Estatuaren erantzun bortitzak erabat jota laga du politika instituzional katalana. Alderdien kupulekiko sosegurik eza handituz doa, oso nabaria independentziaren aldeko militanteen artean. Hori dela eta, azpimarragarria da azken hilabetetan jendartean loratu den antolatze gaitasuna. Horren lekuko, bost manifestaldi jendetsuak eta milaka parte-hartzaileak, errepresaliatuen aldeko laguntza eskerga, baita herrialdeko zoko guztietan egonkortutako ehundaka CDRak (*Comitès de Defensa de la República*). Beste ekimen anitz tarteko, preso politikoei 160.000 gutun jaso dituzte.

Hala eta guztiz ere, errealitatea egos-

Azkenaldion, hainbat katalanen azalpen asko entzun eta irakurri dugu, errudun sentimendua azaleratu dute, euskal gatazkari buruz zabaldu ziren bertsio ofizialak sinetsi zituztelako txintik atera gabe

korra da, eta bidea gero eta hertsia goa. Adibidez, Auzitegi Gorenak zirkinik egin gabe onartu ditu Estatuaren Abokatu-tzak eta Fiskaltzak proposatu dituen 256 lekukotasunak eta horietako %85 poliziarenak dira. Halaber, Bartzelonako hautesleketako istiluen aurkako bi polizia daude inputatuta: Informazio Brigadako komisario burua, mugimendu sozial katalanen aurkako berreroa *Jordi* izengoitiak ezagutzen dute, 90eko hamarkadan herritarrak derrigortzen zituen poliziaren infiltratu izatera eta tortura salaketak ditu oraindik- eta Diego Pérez de los Cobos Guardia Zibileko koronela, prozesatua eta euskal aktibista bati egindako torturetatik salbuetsia.

Puntu honetara iritsita, galdera gailentzen da: ez al zineten ohartu aurrean zenuten etsaiaren tamainaz? Erantzuna,

nagusiki: “Ez!”. Azkenaldion, hainbat katalanen azalpen asko entzun eta irakurri dugu, euren errudun sentimendua azaleratu dute, euskal gatazkari buruz zabaldu ziren bertsio ofizialak sinetsi zituztelako txintik atera gabe. 18/98 sumarioa heldu zait burura, eta ulertzen dut zuek haserretzea, baina, ulertuiezadazue, horixe da berri onena. Hobe berandu, inoiz ez baino. Azken buruan, ezertan aurrera egin badugu, izan da ulertzea egungo markoan ez dagoela demokraziarik.

Bataila hasi besterik ez da egin eta sententzia diktatuko denean, Estatuak senperrenak eginen ditu epaiaren aurrean izanen diren “erreakzioak” amantatzeko, aspaldidanik lantzen ari diren erreakzioak. Haien txarrena eta gure onena etortzeko daude oraindik ere. Begirada luzez ari denak, autodeterminazioa gizartea eraldatzeko baliabide bezala lantzen ari denak, iritsi garen garaira iritsita, sumatzen du zein den askatasuna lortze bidean ordainaraziko diguten prezioa. Alabaina, etorkizuna gure esku dago.

Azkenik, Omnium Culturaleko presidente Jordi Cuixarten etxe-aurrealdean dagoen argazki ondoko esaldia dut gogoan: “Zigor-gela txikia da baina loaldia mugagabea”. At Versaris taldearen *No fear* (*Ez beldurrik izan*) kantatik hartua da. Honekin bukatzen dut: “Ez badigute ametsik egiten uzten, ez diegu lorik egiten utziko”. Beti legez, zuen laguntza behar dugu. ●